



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko maiatzaren 15a

53. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

#### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-26/ITP-00019. Interpelazioa, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eskaintza akademikoa dibertsifikatzearen arloko politika orokorrari buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (3. or.).
- 11-26/MOC-00080. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Espainiako Gobernuari eska diezaion transferitua izan dadila atzerritarrentzakoak diren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenak kudeatzeko eskumena, lan harremana Nafarroan garatzen den kasuetarako. Cristina López Mañero andreak aurkeztu du (4. or.).
- 11-26/MOC-00081. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita urgentziaz desblokea dezan nekazaritza-dronen bitartezko aplikaziorako pilotu izateko prestakuntza ofiziala, eta susta dezan teknologia berriak egiazki ezartzea Nafarroako nekazaritzan. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 11-26/MOC-00082. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita araudia urgentziaz egokitu dezan, dronak tratamendu fitosanitarioetarako erabil daitezkeen baimentzeko, altuera baxuko araubide berariazkoan. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (7. or.).
- 11-26/MOC-00083. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen baitira susta dezaten lehentasun nazionalaren printzipioaren arabera izan dadila laguntza, dirulaguntza eta prestazio publikoen eskuratzea, halako moldez non baliabide publikoak lehentasunez esleituko baitzaizkie lurraldean sustraitze erreal, iraunkor eta egiaztagarria dutenei. Talde Mistoak aurkeztu du (9. or.).
- 11-26/MOC-00065. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita urte honetan bertan hasi dezan LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea ebaluatzeko parte hartzeko prozesu bat. Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordeak onetsi du (11. or.).
- 11-26/MOC-00067. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen baititu Israelgo estatuak Palestinako populazio zibilaren aurka egindako erasoak eta genozidio-ekintzak. Bizikidetasunaren eta NAzioarteko Elkartasunaren Batzordeak onetsi du (12. or.).

—11-26/MOC-00078. Mozioa, zeinaren bidez Bardeako Komunitatea eta Defentsa Ministerioa premiatzen baitira 2028an Bardeako tiro- eta bonbardaketa-poligonoaren indarreko errentamendu-kontratua amaitzen denean ez dezaten hura berriro eta eremu horren erabilera militarri amaiarazi dadin. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak ezetsi du (13. or.).

**F SAILA:**

**Galderak:**

- 11-26/POR-00172. Galdera, Nafarroako IV. Kooperazio Plan Zuzendariaren prestaketari buruzkoa. María Isabel García Malo andreak egin du (14. or.).
- 11-26/PES-00123. Galdera, Etxebizitza Hutsen Erregistroari buruzko urteko txostenari buruzkoa. Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egin du (14. or.).
- 11-26/PES-00124. Galdera, onura publikoko 191 zenbakiko mendiari (“Las Selvas”) buruzko bateragarritasun- edo gailentasun-deklarazioaren gainekoa, Geoalcali, SLk sustatutako Mina Muga proiektuari dagokionez. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (16. or.).
- 11-26/PES-00125. Galdera, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentziaren estatutuei eta hasierako jarduketan planari buruzkoa. Oihan Mendo Goñi jaunak egin du (17. or.).
- 11-26/PES-00126. Galdera, hezkuntza-laguntzako espezialisten zerrendei buruzkoa. Kevin Lucero Domingues jaunak egin du (17. or.).
- 11-26/PES-00127. Galdera, Volkswageni eta Israelekin dituen harremanei buruzkoa. Miguel Garrido Sola jaunak egin du (18. or.).
- 11-26/PES-00128. Galdera, ehiza antolatzeko planen luzapenari buruzkoa. Félix Zapatero Soria jaunak egin du (19. or.).
- 11-26/PES-00129. Galdera, hezkuntza-arloko tutoretzei buruzkoa. Carlos Guzmán Pérez jaunak egin du (20. or.).
- 11-26/PES-00130. Galdera, epidermolisi buloso distrofikoaren diagnostia duten nafar pazientei Vyjuvek botika finantzatzeari buruzkoa. Leticia San Martín Rodríguez andreak egin du (20. or.).
- 11-26/PES-00131. Galdera, Skolae hezkidetza-planaren garapenari buruzkoa. Oihana Gallo San Román andreak egin du (21. or.).
- 11-26/PES-00132. Galdera, 2026/2027 ikasturterako Skolae hezkidetza-planari buruzkoa. Oihana Gallo San Román andreak egin du (22. or.).
- 11-26/PES-00133. Galdera, NKJFI-Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak Sendavivaren enpresa kudeatzaile den Parquenasari 2023an emandako dirulaguntzari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (23. or.).

**G SAILA:**

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea. Hautagitzak aurkezteko epea luzatzea (24. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **11-26/ITP-00019. Interpelazioa, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eskaintza akademikoa dibertsifikatzearen arloko politika orokorrari buruzkoa**

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako interpelazioa, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eskaintza akademikoa dibertsifikatzearen arloko politika orokorrari buruzkoa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **INTERPELAZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako foru-parlamentari Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako interpelazio hau aurkezten dio Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Nafarroako Unibertsitate Publikoa funtsezko erakundea da gure erkidegoan, garapen ekonomi-

ko eta sozialari egindako ekarpenagatik, ikerketarako duen gaitasunagatik eta kalitatezko goi-mailako hezkuntza publikoaren berme izateagatik.

Azken urteotan, NUPek bereziki sendotu du titulazio tekniko, zientifiko eta aplikatuen arloan duen profila. Positiboa da bilakaera, baina beharrezkoa da hausnarketa egitea bere eskaintza akademikoa-oren oreka globalari buruz eta eskaintza horretan giza zientziek, komunikazioak eta gizarte-zientziek izan beharreko presentziari buruz.

Hausnarketa hori muntakoa da unibertsitatearen ikuspuntutik ez ezik gizarte- nahiz lurralde- ikuspuntutik ere; izan ere, eskaintza handiago eta orekatuago batek ahalbidetuko luke hobeki erantzutea ikasle nafarren prestakuntza- interesen aniztasunari, eta sendotu egingen luke unibertsitate publikoaren eginkizuna, kohesiorako, pentsamendu kritikorako eta gizartearen zerbitzurako tresna den aldetik.

Horregatik guztiagatik, interpelazio hau aurkezten diogu Nafarroako Gobernuari, informa dezan zein den darabilen politika orokorra unibertsitate- sistemaren eskaintza akademikoa dibertsifikatzeari dagokionez, bereziki giza zientzien, komunikazioen eta gizarte-zientzien arloan.

Iruñean, 2026ko apirilaren 30ean

Foru-parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

## **11-26/MOC-00080. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Espainiako Gobernuari eska diezaion transferitua izan dadila atzerritarrentzakoak diren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenak kudeatzeko eskumena, lan harremana Nafarroan garatzen den kasuetarako**

*CRISTINA LÓPEZ MAÑERO ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Cristina López Mañero andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita Espainiako Gobernuari eska diezaion transferitua izan dadila atzerritarrentzakoak diren norberaren edo besteren konturako lanerako hasierako baimenak kudeatzeko eskumena, lan harremana Nafarroan garatzen den kasuetarako.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Zioen azalpena

Nafarroak erronka garrantzitsua du aurrean, hazteko eta lehiakorragoa izateko: lanpostu jakin batzuk betetzeko zailtasuna, hutsik geratzen direnak horiek betetzeko hautagairik ez dagoelako, izan lanpostu horiek kualifikatuak zein ez.

Hala, enpresaburuen eta enpresa-elkarteen kexak eta eskaerak ohikoak dira, eta, gainera, kasu askotan lanpostu horiek berehala bete behar izaten dituzte.

Lanpostu huts horietako batzuk migratzaileek bete ahalko litzukete. Berez, asko lan-merkatuaren parte dira eta Gizarte Segurantzaren kotizatzen dute (zehazki, afiliatuen % 13 dira).

Hein handi batean, gainera, beste batzuek bete nahi ez dituzten sektoreetan egiten dute, hala nola landa-eremuan, eraikuntzan, ostalaritzan eta zaintza-lanetan, besteak beste. Nafarroan oraindik lan-indar beharra dagoen sektoreetan.

Langile gabezia horri gehitu behar zaio lan-baimenak eskuratzeko eta kontratazioak egiteko izapideen mantsotasuna.

Egoera horretan, Nafarroak lan-baimenak kudeatzeko eskumena izateak gure lan-merkatuaren beharretara hobeto egokitzea ekarriko luke, bai eta izapideak egiteko orduan arintasun handiagoa ere.

Transferentziak barne hartuko lituzke Nafarroan lan egiteko hasierako baimenak kudeatzeko eskumenak, baimen kolektiboak jatorrian, denboraldi-lanetarako baimenak, gizarte- eta lan-errotzea eskuratzeko lan-kontratuaren edo lan-kontratuen betekizunak betetzen direla egiaztatzea, eta gizarte- eta prestakuntza-errotzea eskuratzeko behar diren prestakuntza eta irakaskuntzen baliozkotasuna egiaztatzea.

Halaber, beste hau sartzea proposatzen da: Lan-ikuskaritzaren eta Gizarte Segurantzaren arloko eskumenaren transferentzian, Nafarroak dagoeneko Estatuari eskatu dion horretan, sartuta egon dadila lan-harremana Nafarroako Foru Komunitatean garatzen duten atzerritarren hasierako lan-baimenen arloko araudia betetzeari buruzko ikus-ka-pen-funtzioa.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

**1.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia-tzen du Espainiako Gobernuari eska diezaion Nafarroan garatzen diren norberaren zein besteren konturako atzerritar langileen hasierako lan-baimenen kudeaketaren eskumena transferitzea. Zehazki, hauena:

– Lan-harremana Nafarroako Foru Komunitatean garatzen duten norberaren zein besteren konturako atzerritar langileen hasierako lan-baimenak ematea.

– Atzerritarrei Nafarroako Foru Komunitatean garatzen diren denboraldi-jardueretarako lan-baimenak ematea.

– Jatorrian egindako kontratazioen kudeaketa kolektiboa, lan-izaera duten izapideei dagokienez, estatuan aplikatzekoa den araudiarekin bat.

– Gizarte- eta lan-errotzea eskuratzeko lan-kontratuaren edo lan-kontratuen betekizunak betetzen direla egiaztatzea, dagokion txostena emanaz.

– Gizarte- eta prestakuntza-errotzea eskuratzeko behar diren prestakuntza eta irakaskuntzen baliozkotasuna egiaztatzea, dagokion txostena emanaz.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Gobernuari eska diezaion Lan-ikuskaritzaren eta Gizarte Segurantzaren arloko etorkizuneko eskumenak barne har dezala ikuskapen-funtzioa, zeina bideratuko baita lan-harremana Nafarroako Foru Komunitatean garatzen duten atzerritarrentzako norberaren nahiz besteren kontuko lanerako hasierako baimenen arloko araudiaren betetzea aztertzeraz.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Foru-parlamentaria: Cristina López Mañero

## **11-26/MOC-00081. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita urgentziaz desblokea dezan nekazaritza-dronen bitartezko aplikaziorako pilotu izateko prestakuntza ofiziala, eta susta dezan teknologia berriak egiazki ezartzea Nafarroako nekazaritzan**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita urgentziaz desblokea dezan nekazaritza-dronen bitartezko aplikaziorako pilotu izateko prestakuntza ofiziala, eta susta dezan teknologia berriak egiazki ezartzea Nafarroako nekazaritzan.

2. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

3. Ezartzea mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezteko du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita urgentziaz desblokea dezan nekazaritza-droneen bitartezko aplikatze-pilotu izateko prestakuntza ofiziala, eta susta dezan teknologia berriak egiazki ezartzea Nafarroako nekazaritzan.

Zioen azalpena

Europako eta Espainiako nekazari-jarduna eraldaketa teknologikoko prozesu batean murgilduta dago, doitasunezko nekazaritzara, digitalizaziora eta nekazaritza-tratamenduen ingurumen-inpaktua murriztera bideratuta.

Testuinguru horretan, nekazaritza-droneen erabilera azken urteetako berrikuntza teknologiko nagusietako bat da, ahalbidetu baititu aplikazio zehatzagoak, produktu fitosanitarioen erabilera murriztea, deriba txikiagoa, lurzorua trinkotzea murriztea eta operadoreen segurtasuna hobetzea.

Droneek, gainera, lur-tratamenduak bideragariak ez diren egoeretan jarduteko aukera ematen dute, hala nola urak hartutako lurzatietan, iristeko zailak diren lursailetan, malda handiak dituzten eremuetan edo larrialdi fitosanitarioko egoeretan.

Hala ere, egungo araudiak aplikazio horiek "aireko tratamendutzat" hartzen ditu oraindik, eta hasiera batean nekazaritzako hegazkin txikientzat eta helikopteroentzat diseinatutakoa den araubide baten mende jartzen ditu. Horrek gain-araupetze eta blokeo administratiboko egoera bat sortzen du, teknologia horren garapena eragozten duena.

Nekazaritza-erakundeek —Unión de Uniones-ek kasu— egoera hori salatu dute berriki, bai Nekazaritza Ministerioaren bai Europako instituzioen aurrean, eta eskatu dute droneekin egindako tratamenduak altuera baxuko aplikaziotzat har daitezela eta ez nekazaritzako abiazio konbentzionaltzat, hartara araudia egungo errealitate teknikora egokituta.

Beste autonomia-erkidego batzuk droneen bitartezko aplikatze-pilotuen prestakuntzan eta homologazioan aurrera egiten ari diren bitartean, Nafarroak erabat geldirik jarraitzen du.

Madrilgo Erkidegoak, IMIDRAren bidez, ofizialki aitortutako berariazko eta doako prestakuntza-programak garatzen ditu dagoeneko. Zenbait erki-degotan homologatutako beste entitate batzuek 1311/2012 Errege Dekretura eta Europako indarreko araudira egokitutako ikastaro ofizialak ematen dituzte.

Hala ere, Nafarroan gaur egun ez dago nekazaritza-droneen bitartezko aplikatze-piloturako prestakuntza espezifikoko benetako eskaintza homologaturik, nahiz eta badauden jardura hori garatzeko interesa duten enpresak, profesionalak eta nekazariak.

Gainera, dagoeneko planteatuta dauden ikastaroekin lotura duten zenbait espedientek hilabeteak daramatzate administratiboki blokeatuta, eta horrek segurtasunik eza, aukera ekonomikoen galera eta beste autonomia-erkidego batzuekiko konparaziozko bidegabekeria eragiten du.

Bereziki kontraesankorra da Nafarroako Gobernuak etengabe digitalizazioaz, berrikuntzaz, jasangarritasunaz eta nekazaritza adimentsuaz hitz egitea eta praktikan zailtzea, hain zuzen ere, lehen

sektorea modernizatzeko ahalmen handiena duen teknologietako bat.

Nafarroa ezin da atzean geratu Europako beste eskualde eta herrialde batzuetan jada ezartzen ari den teknologia bati dagokionez.

Horregatik guztiagatik, UPN talde parlamentarioak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du urtea amaitu aurretik abiaraztera nekazaritza-droneen bitartez produktu fitosanitarioak aplikatzeko pilotuen prestakuntzarako eta homologaziorako programa ofizial bat, 1311/2012 Errege Dekretuan eta indarrean dagoen Europako araudian ezarritako baldintzetara egokitua.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prestakuntza hori sar dezan Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoa-ri, nekazaritza-prestakuntzari eta lehen sektorearen digitalizazioari lotutako finantzaketa-lerroetan, nekazariari, kooperatibei eta nekazaritza-zerbitzuetako enpresei doako sarbidea edo sarbide hobariduna errazteko.

3. Nafarroako Parlamentuak departamentu eskuduna premiatzen du gaur egun administratiboki geldirik dauden nekazaritza-droneen bitartezko aplikatze-piloturako ikastaro ofizialekin lotutako espedienteak berehala desblokeatzera eta ebazterara.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lankidetzan aritzera unibertsitate, zentro teknologiko, elkargo profesional eta enpresa espezializatuekin, droneen erabilerari lotutako programa pilotuak, prestakuntza praktikoa eta doitasunezko nekazaritzako proiektuak bultzatze aldera.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Estatuaren eta Europako instituzioen aurrean nekazaritza-droneentzako berariazko arau-egokitzapen bat defendatzera, drone horiek nekazaritza-abiazio konbentzionaletik bereizirik eta araubide-esparru proportzionatu bat ahalbiderurik, teknikoki eguneratua eta berrikuntzarekin eta jasangarritasunarekin bateragarria.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 7an

Foru-parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **11-26/MOC-00082. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita araudia urgentziaz egokitu dezan, dronak tratamendu fitosanitarioetarako erabil daitezen baimentzeko, altuera baxuko araubide berariazkoan**

*MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita araudia urgentziaz egokitu dezan, dronak tratamendu fitosanitarioetarako erabil daitezen baimentzeko, altuera baxuko araubide berariazkoan.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordean eztabaidatzeko:

Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita araudia urgentziaz egokitu dezan, droneak altuera baxuko araubide berariazkoan tratamendu fitosanitarioetarako erabil daitezen baimentzeko.

Zioen azalpena

UPNk azpimarratu nahi du Europako nekazari-jarduna iraultza teknologiko batean dagoela: doitasunezko nekazaritza digitalizatu eta klimatikoki jasangarri bateranzko trantsizioa lehentasuna da gaur egun, hala Europar Batasunarentzat nola Espainiarentzat. Droneak bezalako teknologiak, kapritxo futurista izatetik urrun, laboreak monitorizatzeko, produktuak behar diren lekuetan bakarrik aplikatzeko eta fitosanitarioen erabilera eta deriba nabarmen murrizteko aukera ematen dute. Malda

handiak dituzten edo urpean dauden lurretan, non lurreko ekipoak ezin diren sartu, gailu arin horiek dira, benetan, aukera bideragarri bakarra.

Hala ere, indarrean dagoen araudiak, nekazaritzako abiazio arrunterako diseinatuak, ez ditu bereizten hainbat tonako helikoptero bat eta lurretik metro batera hegan egiten duen 20 kiloko drone bat. 1311/2012 Errege Dekretuak droneekin egindako edozein aplikazio "aireko tratamendu" gisa jotzen du, eta debekatu egiten du, salbuespenezko baimenik ezean. Horrek neurritz kanpoko karga administratiboak sortzen ditu, eta, praktikan, lehiakortasuna handitu eta ingurumen inpaktuak murriztu ditzakeen teknologia bat blokeatzen du. Arazo horren ondorioz, nekazaritza-erakundeak —Unión de Uniones kasu— Nekazaritza Ministerioarekin eta eurodiputatuekin bildu dira, aldaketak eskatzeko. Drone bidezko tratamenduak altuera txikiko aplikaziotzat hartzea eskatzen dute; horrek aukera emanen luke benetako arriskuan oinarritutako araubide bat ezartzeko, baimenak arintzeko eta nekazariak larrialdi-egoeretan alternatibarik gabe geratzea ekiditeko.

Gainera, teknologia honen erabilgarritasuna nekazaritza konbentzionaletik harago doa. Droneak dagoeneko erakusten ari dira espezie inbaditzaileen aurka borrokatzeko ahalmen handia dutela; adibidez, liztor velutinoaren aurka borrokatzeko. Izan ere, liztor hori Nafarroan lortzen ari den hedapena gero eta kezkarriagoa da, biodibertsitatean, erlezaintzan eta osasun publikoan dituen ondorioengatik. Nafarroako enpresek sistema espezifikoak garatu dituzte, iritsezinak diren eremuetan habiak aurkitzeko eta neutralizatzeko gai direnak, hartara langileentzat arriskuak minimizaturik eta ingurunean kalterik eragin gabe. Administrazio eta udal batzuk droneen erabilera aztertzen hasi dira izurri inbaditzaile hori kontrolatzeko tresna eraginkor gisa. Teknologia horiek araz blokeatzeak ingurumena eta osasuna babesteko tresna berritzaileak mugatzea ere badakar.

Bien bitartean, Europako gainerako herrialdeak aurrera doaz. Frantziak 2025-365 Legea onetsi du, eta droneak hiru kasu hauetan erabiltzeko aukera ematen duen dekretu bat lantzen ari da: larrialdiak, arrisku txikiko produktu etarako edo % 20tik gorako maldetan edo txertakako mahastietan biokontrola egiteko programak, eta saiakuntza zientifiko ikus-

katuak. Italiak legegintza-zuzenketa bat sartu du, droneekin lainoztatzeko hiru urteko probaldia baimentzen duena. Madrilgo Erkidegoa bera ere aplikatze-pilotuak doan prestatzen eta beren araudia egokitzen ari da; Nafarroak, berriz, abangoardia teknologikoko diskurtsoa gorabehera, ez du ikastaro homologatu bakar bat ere, eta hilabetee-tan zehar blokeatutako espedienteak ditu.

Egoera hori gatazkan sartzten da Nafarroak eta EBk sustatzen dituztela dioten berrikuntza-politikekin. Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoak eta “Baserritik mahaira” estrategiak digitalizazioa eta fitosanitarioen erabilera murriztea bilatzen dute, baina droneak abiazio gisa sailkatzeak helburu horiek betetzeko funtsezko tresna bati uko egitera behartzen du, Foru Komunitatea desabantaila egoeran kokaturik Europako beste eskualde eta herrialdeen aldean. Nafarroa ezin da baztertuta geratu, hain zuzen ere nekazaritza-lehiakortasuna hobetu, izurrien eta espezie inbaditzaileen kontrako borroka indartu eta aplikazio fitosanitarioen ingurumen-eragina murriztu dezakeen teknologia batean.

Erabaki-proposamena:

1. Araudi-birsailkapena. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuaren premiazten du susta dezan, Espainiako Gobernuaren eta Europako Batzordearen aurrean, 1311/2012 Errege Dekretuaren eta foru-araudiaren aldaketa, droneen bitarteko fitosanitario-aplikazioak garaiera txikiko aplikazio-tzat har daitezzen, nekazaritza-abiazioaz bestelakoak. Erregimen berri hori arriskuen ebaluazioan eta droneen errealitate teknikoan oinarritu beharko da, eta erregistro, prestakuntza eta aseguruetarako baldintza proportzionatuak ezarri beharko dira.

2. Salbuespenezko baimenak eta berrikuntzako pilotuak. Legea egokitzen den bitartean, Landa Garapeneko Departamentua premiazten da salbuespenez baimendu dezan droneak erabiltzea larrialdi egoeretan (uholdeak, sarbide ezinezkoa, muturreko maldak) eta arrisku txikiko edo biokontrolerako produktuekin egindako programa pilotuetan, Frantziako eta Italiako ereduari jarraituz.

3. Sektorearekiko eta zentro teknologikoekiko lankidetzak. Unibertsitate, zentro teknologiko, kooperatiba eta droneen enpresekin hitzarmenak egitea proposatzen da, proiektu pilotuak eta azterlan konparatiboak garatze aldera. Ekimen horiek droneen bitarteko tratamenduen eraginkortasuna, segurtasuna eta ingurumen-eragina ebaluatuko dute, eta araubide berrirako oinarri zientifiko gisa balioko dute.

4. Finantzaketa eta prestakuntza. Nafarroako Parlamentuak premiazten du droneen bitarteko aplikatze-piloturako ikastaroak Nekazaritza Politika Bateratuaren Plan Estrategikoan eta nekazaritza-prestakuntzako programa autonomikoen finantzaketa-lerroetan sartuak izan daitezzen, doakotasuna edo hobariak ziurtaturik eta sektorearen modernizazioa bultzaturik.

5. Dibulgazioa eta defentsa Bruselan. Azkenik, mozio hau Nafarroako Gobernuari, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioari, Nafarroako eurodiputatuari eta nekazaritza-erakundeei helaraztea proposatzen da, Bruselan europar ikuspegiaren aldaketa bat defendatzeko, eskualde aitzindariari —hala nola Nafarroari— modua emanen diena doitasunezko nekazaritzaren iraultza lideratzeko.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 7an

Foru-parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

## **11-26/MOC-00083. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen baitira susta dezaten lehentasun nazionalaren printzipioaren arabera izan dadila laguntza, dirulaguntza eta prestazio publikoen eskuratzea, halako moldez non baliabide publikoak lehentasunez esleituko baitzaizkie lurraldean sustraitze erreal, iraunkor eta egiaztagarria dutenei**

### **TALDE MISTOAK AURKEZTU DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Talde Mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen baitira susta dezaten lehentasun nazionalaren printzipioaren arabera izan dadila laguntza, dirulaguntza eta prestazio publikoen eskuratzea, halako moldez non baliabide publikoak lehentasunez esleituko baitzaizkie lurraldean sustraitze erreal, iraunkor eta egiaztagarria dutenei.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

**3.** Ezartzea mozioa Osoko Bilkuran izapidetu dadin, eta xedatzea zuzenketak aurkezteko epea buka dadin eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **MOZIOAREN TESTUA**

Talde Mistoko foru-parlamentari eta VOXeko kide den Emilio Jiménez Román jaunak honako mozio hau aurkezten du, 2026ko maiatzaren 14ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta, kasua bada, onesteko:

Zioen azalpena

Egungo ongizate-estatua espainiarren belaualdi osoen ahalegin etengabearen eta ekarpen eskuzabalaren emaitza da; izan ere, haien lanari eta sakrifizioari esker, zerbitzu publiko duinak ezarri ahal izan dira.

Halarik ere, sistema hori krisi sakon baten pean dago gaur egun, orain arteko gobernuen kudeaketa eskasaren zuzeneko ondorio gisa, zeren haiek ez baitira gai, espainiar guztiak zergakarga itogarri baten mende dituzten arren, zerbitzu publiko horien beraien kalitatea eta eraginkortasuna ziurtatzeko.

Urteetan zehar, bipartidismoaren gobernuak apustu egin dute muga irekien politika baten, deifektuaren eta multikulturalismoaren alde, eta horrek inoiz ez bezalako immigrazio-inbasioa eragin du, Espainiako errealitate sozial, demografiko eta kulturala aldatzen ari dena. Hala, Espainian etorkizun hobe izanen dutelako promesa faltsuek erakarrita, urtez urte milioika atzerritarrek gure mugak zeharkatzen dituzte, kasu askotan gizakiekin trafikatzan duten mafiak aberastuz eta haien jatorrizko herrialdeei etorkizun hobe baten eta oparotasunaren itxaropena kenduz. Hori horrela, 2000. urtean Espainian atzerritarren populazioa % 4 baino gutxiagokoa zen bitartean, 2026an % 20 baino gehiagokoa da. Espainiara etorritako atzerritarren etengabeko fluxu hori (azken 5 urtekoan soilik, Espainiak 3 milioi atzerritar inguru jaso ditu) faktore erabakigarria izan da herritarren segurtasuna hondatzeko eta ordenaren eta bizikidetzaren oinarritzko baldintzak hausteko. Aski da Barne Ministerioak egindako hiru hilean behingo ondoz ondoko kriminalitate-balantzei begiratu bat ematea, egiaztatzeko ezen kriminalitateak gora egin duela bereziki larriak diren esparruetan, Pedro Sánchez gobernuko lehendakartzara heldu zenetik.

Era berean, immigrazio masiboa izaten ari den ondorioak dagoeneko ikus daitezke gure auzoen nortasunaren desagerepenarekin, haietako bizimodu aldaketarekin eta belaunaldi belaunaldi gure bizikidetzaren egituratu zuten gizarte-loturen hausturarekin.

Baina, zalantzarik gabe, egungo immigrazio-eredu deskontrolatua eragin bereziki esanguratsua izaten ari da zerbitzu publikoen jasagarritasunean. Gure ongizate-estatuaren eredia, datozen belaualdiei etorkizun hobe uzteko atsedetik gabe lan egin duten espainiarren belaualdi osoek eraikia, tentsionatua izaten ari da eta porrot egiteko zorian dago.

Azken horri dagokionez, nabarmendu behar da Pedro Sánchezen gobernuak bi arau onetsi dituela, immigrazio masiboaren ondorioz gure herrialdeak jasaten dituen arazoak are gehiago biziagotuko dituztenak eta epe ertainari begira botoak

irabazteko asmo ukaezina dutenak: apirilaren 14ko 316/2026 Errege Dekretua eta martxoaren 11ko 180/2026 Errege Dekretua. Bi arau horiek ez ziren Gorte Nagusietan ez eztabaidatu ez eta bozkatu ere, eta helburutzat dute Espainiako legeak gure lurraldera iristeko edo bertan irauteko urratu zituzten haiek saritzea, halatan immigrazio masiboaren sustapenean bereziki inplikaturik dauden ezkerreko alderdiek milioika boto eskuraturik.

Badaude halaber adibideak erregio-mailako gizarte-prestazioenak, zeinetan atzerritarren onuradun izan baitaitezke. Adibide horiek paradigma-tikoak dira, sen on oinarritzkoenaren aurka egiten dutelako. Horri dagokionez, Madrilgo Erkidegoak Gutxieneko Gizarteratze-errentaren lorpenerako ezarritako baldintzak aipa daitezke: benetako bizilekutzat zenbatuko da Espainian espetxeetan edo tratamendu terapeutiko edo errehabilitazioko zentroetan igarotako denbora.

Puntu honetara iritsita, erauzketa izaera duen egungo immigrazio-ereduaren aurrean, eta egungo baliabide mugatuaren testuinguruan, defendatu behar da gure baliabide publikoek lehentasunez espainiarren beharrak asetzera jo behar dutela. Indarrean dagoen arau-esparrua espainiar herriak eskatzen dituen justizia sozialaren beharretara eta eskakizunetara egokitu behar da, eta mekanismo sozial guztiak berrikusi behar dira, sen onaren printzipio bat aplikatuz: lehentasun nazionala. Hori aplikatuta, Espainian sartu nahi duen edozein atzerritarrek jakinen du ez duela espainiarrek baino egoera hobirik izanen, halakoa zeinetan ia automatikoki lortzen baitira tokikoentzat praktikan eskuraezinak diren gizarte-laguntza eta -prestazio batzuk. Espainiarrek egun bizi duten prekaritate materialean dirauten bitartean, ezinezkoa da beste inor laguntzea.

Lehentasun nazionala legitimoa da, eta erantzukizun politikoaren oinarritzko printzipio bati erantzuten dio. Kontua ez da arbitrariotasunez jokatzea, ezta apetzaz baztertzea ere, eta ez dakar giza izaeraren duintasun bortxaezinarekiko gatazkarik. Gobernu ororen oinarritzko betebeharrarekin lotutako ordain-justiziaren irizpide bat berretsi nahi du: arreta lehenago ematea komunitate nazionala bera sostengatzen eta osatzen dutenei. Baldin munduko edozein herritar espainiarren elkartasun kolektiboaren onuradun izan badaiteke, are espainiarren beraien gaineratik, emaitza da ez garelako gureak, etxeokak, laguntzen ari.

Ildo horretan, komenigarria da berriki Extremaduran eta Aragoi VOXek eta Alderdi Popularrak erdietsitako akordioaren balioa nabarmentzea, bi eskualdeak eraldatzeko asmoa dutenak eta Espainia osoarentzako eredu garri izan nahi dutenak.

Akordio horiek benetako alternatiba bat dira Pedro Sánchezen gobernuaren kudeaketa negargarriaren aurrean, zeina Espainiako historiako ustelena bezala gogoratuko baita. Biek ala biek berariaz jaso dute lehentasun nazionalaren printzipioa gizarte-laguntzak eta etxebizitza eskuratzeko.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da, halaber, lehentasun nazionalaren printzipioa Nafarroan ezar dadin defendatzea.

Legeak ezin dira errealitateari bizkarra ematen egin: arduraz egin behar dira, irmotasunez eta Espainiarekiko eta Nafarroarekiko leialtasunez, Nafarroa Espainiaren oinarritzko zati baita.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki-proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu susta dezaten lehentasun nazionalaren printzipioaren arabera izan dadila publikoak diren laguntza, dirulaguntza eta prestazioen lorpenera, halako moldez non baliabide publikoak lehentasunez esleituko baitzaizkie lurraldean sustraitze erreal, iraunkor eta egiaztagarria dutenei. Sistema horrek, zeina indarrean dauden legeen arabera izan, honako hauek jasoko ditu:

a. Lurraldean errotuta eta errolatuta eta harekiko lotura edukita egotearen gutxieneko iraupenaldi indartu bat.

b. Laguntzetarako eskubideak lotura izatea kotizazio-historiarekin, iraupenarekin eta sistemari egindako ekarpenarekin.

c. Legez kanpoko egoeran daudenak egiturazko prestazio eta zerbitzu sozialetarako eskubidetik kanpo uztea, halako moldez non eskurapena huts-hutsik bizi-larrialdiko kasuetara mugatuko baita.

2. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu etxebizitza babestua eta alokairu soziala eskuratzeko lehentasun nazionalaren printzipioan inspiratutako sistema bat ezar dezaten, indarrean dauden legeetara egokituta, halako moldez non baliabide publikoak lehentasunez esleituko baitzaizkie lurraldean sustraitze erreal, iraunkor eta egiaztagarria dutenei. Sistema horrek honako hauek barne hartuko ditu:

a. Errotze erreal eta luzea exijitzea, Nafarroan eta Espainian izandako errolatze historikoan oinarritua (gutxienez ere, erosteko 10 urte eta alokatzeko 5 urte).

b. Ekonomia-, gizarte-, familia-, lan- eta prestakuntza-loturako irizpideak indartzea, eskatzaileak lurraldearekin duen harreman eraginkorra eta afektiboa agerian jartzen duten elementu gisa.

Helburua da egoitza-egonkortasuna bermatzea, biztanleria finkatzea, gizarte kohesioa sustatzea, bizi-proiektuak sendotzen laguntzea, aukera-faltagatik emigratzera behartuta izandako milaka nafarren itzulera ahalbidetzea eta etxebizitza-parkearen gehiegizko errotazio-egoerak ekiditea. Ondorio horietarako, honako hauek baloratuko dira, guxtienez, legearen arabera: kotizazio-ibilbidea eta lan-jarduera, Nafarroan bizi diren lehen mailako senideak egotea, bai eta eskatzaileek eskualdearekin duten benetako lotura iraunkorra egiaztatzen duen beste edozein irizpide ere.

c. Era berean, baremazio-irizpideei dagokienez, positiboki baloratzea egungo etxebizitza-krisiak gehien eragiten dien profil guztiak: 36 urtetik beharako gazteak, familia-nukleo berriak, familia ugariak, mendeko pertsonak ardurapean dituzten bizikidetzak-unitateak, desgaitasuna duten pertsonak, bizileku-soluziorik ez duten pertsonak, pilaketa-egoeran dauden bizikidetzak-unitateak eta abar.

d. Azken 5 urteetan etxebizitzak bortxatu edo usurpatzeagatik kondenatuak izan direnak baztertzea. Gauza bera gertatuko da titulartasun publikoko beste etxebizitza bat titulurik gabe okupatzearen ondorioz berreskuratzea eta/edo utzarazpen administratiboa agintzen duen administrazio-ebazpen irmoa ematen denean haien aurka.

e. Deserrotze soziala errazten duten edo baliabide publikoen esleipena desitxuratzen duten irizpideak ezabatzea.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako eta Nafarroako gobernuak premiatzen ditu aurreko puntuetan deskribatutako baldintzetan lehentasun nazionala benetan lortzea zailtzen duen araudi oro indargabetu edo alda dezaten, Atzeritarrek Espainian dituzten eskubide eta askatasunei eta haien gizartratzeari buruzko urtarrilaren 11ko 4/2000 Lege Organikoa barne.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 7an

Foru-parlamentaria: Emilio Jiménez Román

## **11-26/MOC-00065. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita urte honetan bertan has dezan LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea ebaluatzeko parte hartzeko prozesu bat**

### **LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUN BATZORDEAK ONETSI DU**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordeak 2026ko maiatzaren 12an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita urte honetan bertan has dezan LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren 19ko 8/2017 Foru Legea ebaluatzeko parte hartzeko prozesu bat. Erabakia eragin zuen mozioa Oihana Gallo San Román andreak aurkeztu zuen, eta 2026ko apirilaren 17ko 39. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du:

1. Urte honetan bertan has dezan LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko ekainaren

19ko 8/2017 Foru Legea ebaluatzeko parte hartzeko prozesu bat, inplikaturako eragile instituzional eta sozial guztien ikuspegiak jasoko dituen, bereziki kontuan hartuta LGTBI+ pertsonen kolektiboak eta toki-entitateak, horiek baitira herritarrengandik hurbilen dauden administrazioak eta, beraz, LGTBI+ arloko politika aktiboen aplikazioaren elementu estrategiko bat.

2. Ebaluazio horretatik abiatuta eta parte hartzeko prozesuaren esparruan, foru-lege hori aldatzeko eta/edo garatzeko oinarriak ezar ditzan, besteak beste, sustapen-, jarraipen- eta koordinazio-egiturak izan ditzan eta toki-entitateen eskura dauden tresnak indartu ditzan, bai eta LGTBI+ arloko politika aktiboak ezartzeko esparrua ere”.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **11-26/MOC-00067. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen baititu Israelgo estatuak Palestinako populazio zibilaren aurka egindako erasoak eta genozidio-ekintzak**

### *BIZIKIDETASUNAREN ETA NAZIOARTEKO ELKARTASUNAREN BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Bizikidetasunaren eta Nazioarteko Elkartasunaren Batzordeak 2026ko maiatzaren 13an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiatzen baititu Israelgo estatuak Palestinako populazio zibilaren aurka egindako erasoak eta genozidio-ekintzak. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Israelgo Estatuak Palestinako biztanleria zibilaren aurka egindako eraso eta genozidio-ekintzak erabat gaitzesten ditu, Genozidio Delitua Prebenitzeko eta Zigorretako Konbentzioa, Genevako Konbentzioa eta Nazioarteko Zuzenbide Humanarioa urratzen baititu. Era berean, errefusatu eta gaitzetsi egiten ditu Palestinako biztanleen oinarritzko eskubideen ukazioa, populazioaren lekualdaketa behartua, etxebizitzaren eta azpiegituren suntsiketa sistematikoa eta energiaren, uraren, elikagaien eta medikamentuen horniduraren blokeoa, bereziki Gazako zerrendako biztanleei dagokienez.

2. Gogora dakar Israelek Palestinako lurra okupatzea eta kolonizatzea nazioarteko zuzenbidearen aurkakoa dela, Hagako Nazioarteko Auzitegiak apartheid-erregimen gisa definitutako jardunbide segregazionisten eta zigor kolektiboko praktiken multzo bat ezartzen duela, oztopo direnak bake justu eta iraunkorra lortzeko. Orobat gaitzesten du Zisjordanian eta Jerusalem Ekialdean kolono israeldarrek biztanleria zibil palestinarren aurka baliatutako indarkeria, eta Israelgo agintariak erreklamatzeko die bete ditzaten Nazio Batuen ebazpenak, gatazkaren behin betiko konponbide politikoa lortzeko bidean.

3. Israelgo Estatuak Gobernuari exijitzen dio berehalako su-etena iraunkor eta erreala, baita arrazoi politikoengatik espertxeratutako 10.400 palestinarren askatzea ere.

4. Gazako zerrendan laguntza humanitaria etengabe blokeatzeari behin betikoz eta modu iraunkorrean amaiera eman diezaion eskatzen dio Israelgo Estatuak Gobernuari, eta elikagaiak, ura, medikamentuak eta bizitzarako beharrezkoak diren beste baliabide batzuk banatzea ahalbidetu

dezan eskatzen dio, hori guztia prestigio sendoko nazioarteko agentzia humanitarioek gainbegiratu-tako mekanismoen bidez.

5. Arrazakeria mota guztiak arbuiatzen ditu: judeofobia, islamofobia eta sionismoa.

6. Israelgo Estatuak Gobernuari exijitzen dio bermeak ezar ditzan, Gazako zerrendan lekualdatutako biztanleria zibila bere etxebizitzetara edo horietatik geratzen dena itzul dadin, bai eta palestinar errefuxiatu guztiak ere, Nazio Batuen onetsitako 194. ebazpenaren bidez nazioarteko zuzenbideak aitortutako itzulera-eskubideak jasozten duen bezala.

7. Nazioarteko zuzenbidea eta nazioarteko zuzenbide humanarioa errespetatzeko exijitzen dio Israelgo Estatuak Gobernuari, eta Nazio Batuen sistemaren barruan nahiz hortik kanpo mekanismo eraginkorrak abian jartzea erreklamatzeko, Nazioarteko Zigor Auzitegiari eta Nazioarteko Auzitegiari buruzkoak barne, egindako gerra-krimenak eta gizateriaren aurkako krimenak jazartzeko eta horiei amaiera emateko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premitzen du:

8. Israelgo egungo gobernuarekiko harreman instituzionalak eten ditzan, harik eta Nazio Batuen ebazpenen eta nazioarteko zuzenbide humanitarioaren errespetua berrezarri arte.

9. Europako Parlamentuan abiarazitako ekimena babes dezan, Israelgo Estatuaren eta Europar Batasunaren arteko elkartze-akordioa bertan behera uzteko eta Israelgo Estatuarekiko armen salmentaren eta iragatearen gaineko nazioarteko enbargoa mantentzeko, bere eskumenen baitan enbargo horren eraginkortasuna bermatzeko konpromisoa hartuta.

10. UNRWArekin lanean jarrai dezan, prestigio handiko tresna den aldetik laguntza humanitaria helarazteko eta Gazako zerrenda berreraikitzen laguntzeko zuzeneko lankidetzak ezartzeko.

11. Bere eskumenen esparruan, Israelgo Estatuak su-etena bat berehala betetzera behartzeko behar diren jarduketak ezar ditzan, nazioarteko zuzenbidea eta Nazio Batuen ebazpenak betetze ditzan.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Espainiako Estatuako Gobernuari honako neurri hauek hartzea eska diezaion:

12. Israeli enbargo militarra ezar dakion susta dezan eta haren ordezkarietara banakako zehapenak aplikatu diezazkien, Nazioarteko Zigor Auzitegiak exijitzen duenaren arabera.

13. Justizia unibertsalaren mekanismoak berrezar ditzan.

14. Hegoafrikak Hagako Nazioarteko Auzitegiaren genozidioa dela-eta abiarazitako kausaren parte gisa pertsonatu dadin.

15. Mozal-legea indargabetu dezan eta bertan behera utzi ditzan Palestinako genozidioaren aurka modu baketsuan protesta egin duten pertsonen aurka irekitako administrazio-prozesuak.

16. Lege-esparruaren barruan neurriak hartzen gerra-krimenekin edo gizateriaren aurkako krimenekin lotura zuzena duten gizabanakoak Espainiako Estatuaren lurraldean sartzen ez dela bermatzeko, eta konpromisoa har dezan Nazioarteko Justizia Auzitegiak gerra-krimenengatik eta genozidioagatik inputatutako pertsonak Espainiako lurraldean sartzen badira atxilotzeko nazioarteko aginduei erantzuteko”.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

## **11-26/MOC-00078. Mozioa, zeinaren bidez Bardeako Komunitatea eta Defentsa Ministerioa premiatzen baitira 2028an Bardeako tiro- eta bonbardaketa-poligonoaren indarreko errentamendu-kontratua amaitzen denean ez dezaten hura berritu eta eremu horren erabilera militarri amaioz erabiltzeko dadin**

### *LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAK EZETSI DU*

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak, 2026ko maiatzaren 12an egindako bilkuran, ezetsi egin du Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, EH Bildu Nafarroa eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Bardeako Komunitatea eta Defentsa Ministerioa premiatzen baitira 2028an Bardeako tiro- eta bonbardaketa-poligonoaren indarreko errentamendu-kontratua amaitzen denean ez dezaten hura berritu eta eremu horren erabilera militarri amaioz erabiltzeko dadin. Mozioa 2026ko maiatzaren 8ko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 13an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**11-26/POR-00172. Galdera, Nafarroako IV. Kooperazio Plan Zuzendariaren prestaketari buruzkoa***MARÍA ISABEL GARCÍA MALO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Isabel García Malo andreak egindako galdera, Nafarroako IV. Kooperazio Plan Zuzendariaren prestaketari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioari atxikita dagoen Maribel García Malo andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zertan da Nafarroako IV. Kooperazio Plan Zuzendariaren prestaketa?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 7an

Foru-parlamentaria: Maribel García Malo

**11-26/PES-00123. Galdera, Etxebizitza Hutsen Erregistroari buruzko urteko txostenari buruzkoa***MIKEL ZABALETA ARAMENDIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Zabaleta Aramendia jaunak egindako galdera, Etxebizitza Hutsen Erregistroari buruzko urteko txostenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru-parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroan Etxebizitzarako Eskubide Subjektiboa arautzen duen abenduaren 26ko 28/2018 Foru Legearen xedapen gehigarri bakarrak ezartzen duenez, etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuak urteko txosten bat egin behar du legeak ezartzen dituen neurrien jarraipena egiteko; bereziki, Etxebizitza Hutsen Erregistroaren garapenaren jarraipena.

“1. Foru lege honetan aurreikusitako neurrien eraginkortasunaren jarraipena egiteko, etxebizitzaren arloko eskumena duen departamentuak urteko txosten bat, legeak dituen neurrien noraino-koari, onuradunei eta neurrietara bideratutako baliabideei buruzkoa, prestatuko du eta Nafarroako Parlamentuari igorriko dio, hurrengo urteko lehen lauhilekoan.

2. Aipatu txostenak alderdi hauei buruzko informazioa behintzat bilduko du:

a) Zenbat diren alokairuko etxeak, haien errentek foru lege honetan aurreikusitako PFEZaren kenkari fiskalen laguntza dutenak.

b) Zenbat pertsona edo familia unitate diren laguntza horien onuradun, ERREGEROSNA adierazlearen mailen arabera bereizita.

c) Batez besteko kostuak, pertsona edo familia unitate bakoitzeko, eta guztirako kostuak, Foru Ogasunerako.

d) Aurkeztutako erreklamazio, kexa edo iradokizunak eta administrazio eskudunak emandako erantzuna.

e) Etxebizitza Hutsen Erregistroaren garapena, horretan barne etxebizitzak eta haien ezaugarriak, eskualdeka”.

Ikus daitekeenez, xedapen horrek, gainera, argi ezartzen du txostena hurrengo urteko lehenbiziko

lauhilekoan igorri behar zaiola Nafarroako Parlamentuari, zertarako eta, garrantzi sozial bereziko arlo batean, kontrol parlamentarioa, politika publikoen ebaluazioa eta gardentasuna bermatzeko.

Dagoen azken txostena, 2024ko ekitaldiari dagokiona, 2025eko apirilaren 1ean sartu zen Parlamentuko erregistroan; ezarritako epearen barruan, hain zuzen ere.

Halaber, txosten horrek azpimarratzen du erregistroa garrantzitsua dela etxebizitza hutsak mugitzeko tresna gisa eta etxebizitzaren arloko politika publikoak ebaluatzeko tresna gisa, eta orobat azpimarratzen du beharrezkoa dela horien garapena hobetzea, hutsik dauden etxebizitzaren detekzioa areagotzea eta informazio- eta kontrol-mekanismoak sendotzea.

Txosten horiek garrantzitsuak izan arren, ez dira Nafarroako Etxebizitzaren Behatokiaren webgunean agertzen, eta horrek mugatu egiten du horien ezagutza publikoa.

Azaldutako guztiagatik, honako galdera hauek egiten dira, idatziz erantzun dakien:

1. Nafarroako Gobernuak noiz igorriko du, 28/2018 Foru Legearen xedapen gehigarri bakarrean ezarritakoaren arabera, etxebizitzarako eskubide subjektiboari buruzko urteko txostena, barne dela Etxebizitza Hutsen Erregistroari buruzko informazioa (2025eko ekitaldiari buruzkoa)?

2. Nafarroako Etxebizitzaren Behatokiak gaur egun ez ditu jasotzen Etxebizitza Hutsen Erregistroari buruzko urteko txostenak, eta ez dauka atal espezifiko bat tresna horri bideratua, ez eta Nafarroan hutsik dauden etxebizitzei buruzko daturik ere, nahiz eta urteko txosten guztietan azpimarratzen den horien garrantzia. Zergatik?

3. Aurreikusten al du Nafarroako Gobernuak berriazko espazio bat gaitzea Nafarroako Etxebizitzaren Behatokian, etxebizitzarako eskubide subjektiboari buruzko urteko txostenak eta zehazki Etxebizitza Hutsen Erregistroari buruzkoak sistematikoki, modu eskuragarrian eta gaurkotuan argitaratuko direla bermatuko duena?

Iruñean, 2026ko apirilaren 30ean

Foru-parlamentaria: Mikel Zabaleta Aramendia

## **11-26/PES-00124. Galdera, onura publikoko 191 zenbakiko mendiari (“Las Selvas”) buruzko bateragarritasun- edo gailentasun-deklarazioaren gainekoa, Geoalcali, SLk sustatutako Mina Muga proiektuari dagokionez**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galdera, onura publikoko 191 zenbakiko mendiari (“Las Selvas”) buruzko bateragarritasun- edo gailentasun-deklarazioaren gainekoa, Geoalcali, SLk sustatutako Mina Muga proiektuari dagokionez.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapide-tu ditzan, eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun diezazkion:

Nafarroako oihan ondarea babestu eta gartzeari buruzko abenduaren 31ko 13/1990 Foru Legearen 9.5 artikulua ezartzen du beharrezkoa

dela bateragarritasun deklarazioa lortzea, edo bati bestearen gaintik lehentasuna ematekoa, baldin eta onura publikoaren edo interes orokorraren deklarazioa lortu nahi duen kasuko proiektuak Nafarroako Onura Publikoko Mendien Katalogoan sartuta dagoen mendi bati nolabait eragiten ahal badio.

Nafarroako Gobernuari dagokio bateragarritasun- edo lehentasun-deklarazio horri buruz ebaztea.

Geoalcali, SL merkataritza-sozietateak bulzatutako Mina Muga meatze-proiektuak guztira 21 hektarea ukitzen ditu “Las Selvas” 191. onura publiko mendian.

Horrenbestez, honako galdera hauek aurkezten dira, idatziz erantzun dakien:

1. Geoalcali, SL-k eskaturik al dauka Mina Muga proiektuaren bateragarritasun- edo lehentasun-deklarazioa 21 hektarea horien okupazioari dagokionez?

2. Eskabide hori noiz aurkeztu zen?

3. Zein administrazio-egoeratan dago espediente? Noiz uste da ebatziko dela?

4. Eskabide hori administrazio-isiltasunez onetsi dela ulertu behar al da?

Iruñean, 2026ko apirilaren 30ean

Foru-parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **11-26/PES-00125. Galdera, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentziaren estatutuei eta hasierako jarduketa-planari buruzkoa**

*OIHAN MENDO GOÑI JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Oihan Mendo Goñi jaunak egindako galdera, Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentziaren estatutuei eta hasierako jarduketa-planari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek egiten dizkio Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuari, idatziz erantzun ditzan:

Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentzia arautzen duen apirilaren 9ko 4/2025 Foru Legearen laugarren xedapen gehigarriak honako hau ezartzen du: "Foru lege honek indarra hartzen duenetik urtebeteko epean, Nafarroako Gobernuak hasierako jarduketa-plana eta Estatutuak onetsiko ditu Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentziarentzat, jarraiturik martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legeari, zeina Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru-sektore Publiko Instituzionalari buruzkoa baita".

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditu, idatziz erantzun dakien:

Nafarroako Gobernuak idatzirik al dauzka hasierako jarduketa-plana eta Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentziaren estatutuak?

Hala ez baldin bada,

Nafarroako Gobernuak noizko aurreikusten du hasierako jarduketa-plana eta Nafarroako Energia-trantsizioaren Agentziarako estatutuak idaztea eta onestea?

Iruñean, 2026ko apirilaren 30ean

Foru-parlamentaria: Oihan Mendo Goñi

## **11-26/PES-00126. Galdera, hezkuntza-laguntzako espezialisten zerrendei buruzkoa**

*KEVIN LUCERO DOMINGUES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Kevin Lucero Domingues jaunak egindako galdera, hezkuntza-laguntzako espezialisten zerrendei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikita dagoen Kevin Lucero Domingues jaunak, Parlamentuko Erregelamenduak ezartzen duenaren babesean, honako galdera hau egiten du, Hezkuntzako kontseilari Carlos Gimeno Gurpegi jaunak idatziz erantzun dezan:

2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen 32. artikulua honako hau ezartzen du: "Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzupeko langileen arloko neurriak onesten dituen irailaren 16ko 10/2020 Foru Lege Dekretuaren 2.4 artikuluan aipatzen den iragankortasun-aldia igarota, 2026ko abenduaren 31ra arte, hezkuntza-laguntzako espezialisten lanpostua aldi baterako betetzen ahalko dute C mailako/taldeko lanpostuetara sartzeko eskatzen den titulazio generikoa duten

izangaiek. Nolanahi ere, lehentasuna izanen dute Gizarteratzeko Goi Mailako teknikari titulua dutenek edo, kasua bada, Batxilergo titulua edo baliokidea dutenek, hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasle-en arretarako profesionaltasun-ziurtagiria izanez gero".

Zertan dira hezkuntza-laguntzako espezialisten kontratazio-zerrendak gaur egun?

Hezkuntza Departamentuak bermatu ahal izanen al du hezkuntza-laguntzako espezialisten bidez artatuko direla hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, 2026rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen 32. artikuluan ezarritako epea bukatzen denean?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Foru-parlamentaria: Kevin Lucero Domingues

## 11-26/PES-00127. Galdera, Volkswageni eta Israelekin dituen harremanei buruzkoa

*MIGUEL GARRIDO SOLA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Garrido Sola jaunak egindako galdera, Volkswageni eta Israelekin dituen harremanei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Miguel Garrido Sola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

2025eko maiatzean, foru-gobernuak adierazpen bat onetsi zuen, zeinean Israeli berehalako su-eten iraunkor bat exijitzen baitziren. Adierazpen horretan,

biztanleriaren aurkako eraso indiskriminatuak nahiz laguntza humanitarioaren blokeoa salatzen ziren.

2025eko ekainean, Nafarroako legebiltzarrak ere onetsi zuen erabaki esplizitu bat Israelgo Estatua Palestinako herriaren aurka egiten ari den "genozidioa" salatzeko, eta berehalako su-eten bat, laguntza humanitaria sartu ahal izatea eta Israelekiko merkataritza-akordioak etetea exijitu zuen.

Orain dela gutxi, Espainiako Gobernuko lehendakari Pedro Sánchezek Europar Batasunari eskatu dio bertan behera utz ditzan Israelekiko elkarte- eta merkataritza-akordioak.

Azken hamar urteotan, Nafarroan sukurtsala duen enpresa alemaniarrek, Volkswagenek, 500 milioi euro inguru jaso ditu dirulaguntzetan (autonomikoetan nahiz Europak emandakoetan) eta beherapen fiskaletan.

Orain dela gutxi, Europako eta Espainiako zenbait hedabidek jaso dute Volkswagen enpresaren asmoa dela enpresak Alemanian duen fabriketako bat ibilgailuen sektoretik Israelentzako defentsa antimisilera igarotzea. Iturri horien arabera, aire-defentsako "Burdin kupula" deritzon sistema mugikorraren israeldar fabrikatzailearekiko

elkarrizketak abiarazi dira, akordio batera heltzeko.

Hori dela-eta, hauxe jakin nahi dugu:

Nafarroako Gobernuak eta haren lehendakariak nola ikusten dute Volkswagen zertan eta Israelen armagintza-industriarako osagarrien edo soluzioen fabrikazioan sartzeko aukera, horiek erabiliak izatea Israelek Libano eta Iran bezalako herrialde burujabeen aurka abiarazitako gerran, edo Palestinarako Estatuan genozidioarekin jarraitzea?

Zer posiziotan geratzen da Nafarroan estrategikoa den enpresa hori, eta nola ezkontzen da hori Gobernu honen GERRARIK EZ estrategiarekin?

Gobernuko lehendakariak pentsatu al du nafarrok osatzen dugun bake-gizartearen ikuskerari nola eraginen dion horrek?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Foru-parlamentaria: Miguel Garrido Sola

## 11-26/PES-00128. Galdera, ehiza antolatzekeo planen luzapenari buruzkoa

*FÉLIX ZAPATERO SORIA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Félix Zapatero Soria jaunak egindako galdera, ehiza antolatzekeo planen luzapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Félix Zapatero Soria jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren ustez, juridikoki erabaki al daiteke ehiza antolatzekeo plan indardunak modu orokortuan luzatzea harik eta ehizari edo ehiza-kudeaketari buruzko foru-lege bat eta hura garatzeko araudia onetsi eta indarrean sartu arte? Baiezkoan, adierazi zer arau zehatzetan izanen lukeen babeslekua erabaki horrek.

2. Ehiza antolatzekeo planen balizko luzapen batek zer ondorio juridiko izanen luke indarraldi administratiboa, esleipena, errentamendua edo gaikuntza-titulua ere 2026an bukatuko zaien barrutietan?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Foru-parlamentaria: Félix Zapatero Soria

## 11-26/PES-00129. Galdera, hezkuntza-arloko tutoretzei buruzkoa

*CARLOS GUZMÁN PÉREZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Guzmán Pérez jaunak egindako galdera, hezkuntza-arloko tutoretzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioko Carlos Guzmán Pérez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babe-

sean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Helarazi diguten informazioaren arabera, hezkuntza-premia bereziko zenbait ikasle nafarren familiak arazoekin topo egiten ari dira beren seme-alaben tutoretza-saioretara kasuko hezkuntza-premia bereziaren eremuko profesional-teknikariek lagunduta joateari dagokionez.

Gure ustez, horrek urratu eginen luke Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidea-ri buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53.1.g artikuluan jasotzen den eskubidea: "aholkulari batek lagundurik jardutea beren interesentzat komenigarri deritzotenean".

Hori dela-eta, honako hau galdetzen diogu Hezkuntza Departamentuari:

Ba al dago araurik familiek seme-alaben tutoretzara aholkulari profesional-teknikoarekin joateko duten eskubidea arautzen edo mugatzen duenik?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 4an

Foru-parlamentaria: Carlos Guzmán Pérez

## 11-26/PES-00130. Galdera, epidermolisi buloso distrofiakoaren diagnostia duten nafar pazientei Vyjuvek botika finantzatzeari buruzkoa

*LETICIA SAN MARTÍN RODRÍGUEZ ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Leticia San Martín Rodríguez andreak egindako galdera, epidermolisi buloso distrofiakoaren diagnostia duten nafar pazientei Vyjuvek botika finantzatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintukoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Leticia San Martín Rodríguez andreak, Parlamentuko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Osasun Departamentuak ba al du asmorik epidermolisi buloso distrofiakoaren diagnostia duten nafar pazientei Vyjuvek botika finantzatzeko?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 7an

Foru-parlamentaria: Leticia San Martín Rodríguez

**11-26/PES-00131. Galdera, Skolae hezkidetzaren planaren garapenari buruzkoa****OIHANA GALLO SAN ROMÁN ANDREAK EGIN DU**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihana Gallo San Román andreak egindako galdera, Skolae hezkidetzaren planaren garapenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru-parlamentari Oihana Gallo San Román andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroan, 72/2021 Foru Dekretuak eta 120/2024 Foru Aginduak arautzen dute hezkidetzaren Arau horiek zehazten dute baliabide publikoen bidez mantendutako ikastetxe guztietan aplikatu beharreko Hezkidetzaren Plana.

Eta plan horren arabera egituratzen da Skolae programa, ikastetxeen prestakuntza- eta akonpainamendu-proposamen gisa, haien eraldaketarako.

2017-2018an programaren pilotajea egin zen, eta ondoren inplementatua izan zen. Gerora, beharizan berriak sortu dira, konplexuagoa bihurtu da haren egitura, eta handitu egin da, urtez urte, ikastetxeen eta prestakuntzan ardura duten irakasleen kopurua. Funtsean publikoen bidez mantendutako ikastetxe guztiak daude behartuta Skolae programa betetzera.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

Abenduaren 24ko 120/2024 Foru Aginduan ezarritako ildo estrategikoei dagokienez,

1. Abenduaren 24ko 120/2024 Foru Aginduan ezarritako ildo estrategikoetatik zenbat ari dira betetzen?

A. Irakasle guztiei hezkidetzari buruzko prestakuntza ematea, baliabideak prestatzea eta hezkuntza komunitatearentzako akonpainamendua.

1. Skolae programarako sortutako baliabideak 2016an taxutu ziren. Gaurkotu al dira baliabide horiek? Egokitu al dira ezaugarri bereziak dituzten etapa eta/edo ereduera?

2. Hezkidetzari buruzko prestakuntza ematea irakasle ez diren langileei, zehazki hezkuntza-laguntzako espezialistei, hala ikastetxe arruntetan nola hezkuntza bereziko espezifikoei. Nola ari da gauzatzen puntu hori?

3. Prestakuntza nola ari da gauzatzen, hori eskatu eta programa garatzen ari diren ikastetxe-eta-entitateen familien kasuan?

4. Ikastetxeetan nola ari da gauzatzen haien hezkidetzaren inplementazioko akonpainamendua?

B. Hezkidetzako prestakuntza eta beste zerbitzu batzuekiko koordinazioa, ikuspegi hori Hezkuntza Administrazioaren dokumentu, erabaki eta jardura guztietan txertatzeko.

5. Foru-aginduan ezartzen diren jarduketetatik, zeintzuk ari dira gauzatzen egun Ikuskapen Zerbitzuekin? Zer zerbitzuek jaso dute hezkidetzako prestakuntza Hezkuntza Departamentuan?

C. Ikastetxean hezkidetzaren nortasuna sendotzea eta hezkidetzaren zeharkakotasuna bultzatzea beste programa batzuetan.

6. Nahitaezko prestakuntza bukatuta dagoenean, nola egiten da Hezkidetzaren nortasunaren Planaren eguneratzea eta inplementazioa, araudiaren argitan?

Skolae tutoretzetako langileei dagokienez:

7. Ikasturte honetako irakasleen prestakuntza hasi zenetik (zortzi hilabete joan dira jada), Skolae tutoretzetako langileek egin duten lana ez dute kobratu. Zergatik?

Baterako hezkuntzaren bulegoko langileei dagokienez:

8. Baterako Hezkuntzaren Bulegoko plantilla ez da handitu programaren ezarpena hasi zenetik. Zergatik ez da bulegoko langile-kopurua handitu programaren muntaren arabera, kontuan hartuta

Baterako Hezkuntzaren Bulegoko langileak direla ikastetxeetan hezkidetzak inplementatzeko prozesuei buruzko aholkularitza eta prestakuntza ematen dutenak eta horien jarraipena egiten dutenak?

9. 2025ean, bulegoko bi buruk eman dute dimisioa. Zer dela-eta eman dute dimisioa? Zergatik ez da egonaldia luzatzen? Kontuan hartuta taldea berez dela murrizta, zergatik ez dira bajak estaltzen?

10. Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko ekintza-planak Hezkuntzako Plan Sektorialean ezartzen du zer neurri beteko diren 2026tik 2030era bitarte. Horien artean, aipatzen ziren sexu-indarkeriaren eta ziber-indarkeriaren kontrako eskola-arauak sustatzea, beste maskulinitate-eredu bat eraikitzeke hezkuntza-programak eta material didaktiko ez-sexista berriak, harreman pertsonal nahiz sexu-afektibo indarkeriarik gabeak, askeak, autonomoak eta berdintasunezkoak eraginen dituztenak, Skolae programaren araberrakoak. Nor arduratuko da hori egiteaz?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 7an

Foru-parlamentaria: Oihana Gallo San Román

## 11-26/PES-00132. Galdera, 2026/2027 ikasturterako Skolae hezkidetzak-planari buruzkoa

*OIHANA GALLO SAN ROMÁN ANDREAK EGINDU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Oihana Gallo San Román andreak egindako galdera, 2026/2027 ikasturterako Skolae hezkidetzak-planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikuluko agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru-parlamentari Oihana Gallo San Román andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, idatziz erantzun dezan:

Nafarroan, 72/2021 Foru Dekretuak eta 120/2024 Foru Aginduak arautzen dute hezkidetzak. Arau horiek zehazten dute baliabide publikoen

bidez mantendutako ikastetxe guztietan aplikatzen den Hezkidetzak Plana.

Eta plan horren arabera egituratzen da Skolae programa, ikastetxeen prestakuntza- eta akonpainamendu-proposamen gisa, haien eraldaketarako.

Programaren inplementazioa hasi zenetik ia hamar urte igarota, oraindik ere badaude funts publikoen bidez mantendutako ikastetxe batzuk Skolae programa garatzen ez dutenak.

Hori dela-eta, honako galdera hauek egiten ditut, idatziz erantzun dakien:

– Zergatik daude oraindik programa garatzen ez duten ikastetxeak?

– Zein da 2026-2027 ikasturterako aurreikuspena?

– Zer ikastetxe sartuko dira programan eta zenbat pertsonak jasoko dute prestakuntza?

– Tutoretzako zenbat langile sartuko dira hor?

– Ziurtatuta al dago irakasle guztiei emanen zaiela arreta, zein ere den hautatzen duten hizkuntza?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 7an

Foru-parlamentaria: Oihana Gallo San Román

## **11-26/PES-00133. Galdera, NKJFI-Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak Sendavivaren enpresa kudeatzaile den Parquenasari 2023an emandako dirulaguntzari buruzkoa**

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak egindako galdera, NKJFI-Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak Sendavivaren enpresa kudeatzaile den Parquenasari 2023an emandako dirulaguntzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 215. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezartzen denaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuak Sendavivaren kudeatzaile den Parquenasari 2023an emandako dirulaguntzari buruzkoak, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun ditzan:

1. Zenbatekoa izan zen dirulaguntza hori, guztira?

2. Zenbateko horren barruan ba al dago Europako Next Generation funtsik? Hala baldin bada, zer kopurukoa?

3. Dirulaguntza horren barruan, zenbatekoa izan zen, guztira, Sendavivako obretara bideratu zen diru-kopurua?

4. Sendavivako obretara bideratutako diru-kopuru horretan ba al dago Europako Next Generation funtsik? Hala baldin bada, zer kopurukoa?

Iruñean, 2026ko maiatzaren 7an

Foru-parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **11-23/ELC-00005. Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzea**

### *HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEA LUZATZEA*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2026ko maiatzaren 11n eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 42.1.bederatzigarrena artikularekin bat, honako hau erabakitzen da:

**1.** Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko lehendakaria hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2026ko ekainaren 30eko 15:00ak arte** luzatzea.

**2.** Erabaki hau talde parlamentarioen eledunei jakinaraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2026ko maiatzaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---